

## II. ESKOLASTIKAREN HISTORIA IV.-XII

### ERDI AROA ETA ESKOLASTIKA

- **476. urtean imperioa desagertu** → barbaroen etengabeko inbasioek egonkortasun instituzional eta kulturala oztopatu zuten. Mendeetan sendoa izan zen hiritar kultura desagertu, eta landako bizmodua nagusitu. *Hiri asko desagertu / ekonomia ahuldu / izurriteak*
- **800. urtean europako lurraldearen egoera hobetu eta egonkortu.**

**1. Bi botere** (Eliza, karlomagnoren inperioa) arteko harremanaren testuinguruan kokatu behar da EAko kulturaren eta gizartearen adierazpenik garrantzistuenak: *Eskolastikaren garapena, Unibertsitateen sorrera, kontzilio eta epaiketa erlijiosoak, XII. gurutzadak.*

Bi botere horien arteko akordioa, Erromako aita santuak karlomagno enperadore izendatu zuen, bazegoen ere; horrek ez zituen botere gatazkak saiestu, XIII arte etengabeko istiluak.

Kristau enperadoreen + aita santuaren helburua → Europak batasuna lortzea

Baina Europako lurrak feudotan zatikatu.

Feudo-sisteman feudoak (*lursailak eta morroiak*) tokiko *jauntxoek* gobernatu → beste jauntxo boteretsuagoen menpe.

Elizaren boterea, *Erromako Aulki Santuaren* menpe, zentralizatu egin zen, eta lurraldearen jabetza sakabanatu.

**2. EAko pentsamendu nagusian**, Elizaren boterea eta Estatuarena Jainkoarengandik zetozen; biek bat eginik gizarte fedearen dogmen menpe ????

- Bibliaren dogmei + sistema aristoteliko geozentrikoa gehitu. → Oinarrizko bi osagai horiek EAko mundu ikuskera osatu

- Adierazpen kulturalak elizgizonen esku

- Monasterio eta katedralen inguruan hainbat joera filosofiko bideratu zituzten eskola filokoak sortu → *Eskolastika*

- Botereak ezarritako pentsarekin bat ez zetozen iritziak → *Heresia* (epaiketak, kondenak, liburak erre...)

- EAko kulturaren hizkuntza → Latina

- Irakasten ziren jakintzak → Gramatika, Dialketika, Erretorika, Artimetika, Geometria, Astronomia, Musika.

### **3. Filosofia**

- Patristikari dagokionez → AGUSTIN HIPONAKOA ordezkari nagusia kristau-pentsamenduaren lantze doktrinal garrantzitsuena egin zuen. Kristau-pentsalarien iturria izan zen → XIII. mendean arabiar eta judutarrek *tradizio aristotelikoa* ezagutarazi zuten arte. (TOMAS AKINOKOA)
- Bi filosofo kristau horien artean, kristau pentsari ekarpena egin dioten beste autore batzuk: BOEZIO, ESKOTO ERIGENA, ANTSELMO eta ABELARDO.
- 711. uretik aurrera musulmanen eragin sozial eta intelektual handia, batez ere Iberiar penintsulan. Pentsamendu filokoaren garapenean funtsezko eragina.

#### **1. BOEZIO**

- Teodoriko erregearen ministroa

- Kultura grekoan aditua

- Obra garrantzitsuena: Filosofiaren kontsolamendua (524. urte)

- + Teodorikok espetxeratu eta heriotza-zigorpean zegoela idatzi zuen.
  - + Filosofiaren ikuspegitik interesgarriena → Giza askatasuna eta Jainkoaren probidentzia arteko loturaren azterketa.
  - + Prosan eta bertsoan idatzita, 5 liburuk osatuta.
  - + Argumentua → Espetxean dagoela boeziori *Filosofia* anderea agertzen zaio.
- 
- 1. liburua: Boeziok bere errugabetasuna defendatu, Filosofiak Sokratesek bizitzaren aurrean harturiko jarrera jartzen dio eredutzat.
  - 2. liburua: Estoikoen patuaren beharrezkotasunaren eta zoriontasunaren iarteko loturaren gaia aztertzen du. Estoikoen ustez osasuna, edertasuna, heriotza... ez daude gure esku; beraz, gauza horiek axolagabeak dira, ona eta txarra gure menpe dagoena besterik ez baita.
  - 3. liburua: Zoriontasunaren inguruko hausnarketa, Filosofiaren ustez Jainkoa da ongirik gorena eta ondorioz giza zoriontasunaren oinarria da.
  - 4. liburua: Gaitza aztertzen da, Boeziok galdera bat planteatzen du → Ea zergatik duten arrakasta gaiztoek. Ateratzen duen ondorioa da, arrakasta hori itxurazkoa bakarrik dela.
  - 5. liburua: Filosofikoki interesgarriena. Boeziok giza askatasunaren eta Jainkoaren probidentziaren arteko lotura aztertzen du. Lehenik Probidentzia (jainkoaren ezagutza) eta predestinazioa (Jainkoaren borondatea) bereizten ditu. Boezioren arabera ekintza bat askea izateko ezin da aurreikusia izan, ezta jainkoarengandik ere. Hortaz ondorioztatzen du jainkoaren ezagutza betiereko orainaldikoa dela, eta horrela easkeak izan daitezke.

- Bestalde EAko filosofi oso garrantzitsua den *unibertsalen arazoa* lantzen du Boeziok.

Zer adierazten dute gizaki/lore kontzeptu unibertsalek? Ba al dagokio kontzeptuari kanpo errealitate bat? ala gure gogoaren irudi bat besterik ez da?

- + Boeziok *abstrakzioen teoria* planteatu:
- Kontzeptuak ez du objektu bat adierazten, baina ezin da esan kontzeptua ezer ez denik ere.
- Gure ulermenak, abstrakzioaren bidez → Gorpuzdun denetik objektuaren izaera atera dezake (forma edo esentzia) → Kontzeptu unibertsalean adierazten dugu.

## 2. JOAN ESKOTO ERIGENA. NATURAREN ZATIKETA

IX. ko filosoforik handiena

Bere 2 obra nagusiak: *Jainkozko predestinazioa eta Naturaren zatiketa*

Eskotoren pentsamendu filosofikoaren abiapuntua fedearen eta arrazoimenaren arteko lotura da, hau da, (liburu sakratuetan agertzen den egiaren eta giza arrazoimenaren artekoa). Eskotoren ustez biak jainkoaren jakintzatik sortzen dira. Baina lehentasuna ematen dio arrazoimenari.

-Jainkozko predestinazioa lana

Artzapezpiku batek eskatu zion escotori Gottschak izeneko monje batek predestinazioari buruz atera zituen onodorio batzuei aurre egiteko, ondorio horiek kaltegarria zirelako garaiko monastegientzako.

Gotschakek baieztatu zuen: jainkozko bi predestinazio daudela: salbatuena, zerura joatea /eta kondenatuena infernura. Eskotok argudio horiei aurre eginez atera zituen

onodrioak ordea, are kaltegarriagoak ziren: eskotok infernuak leku fisikorik ez zuela ondorioztatu zuen, eta jainkozko probidentzia eta predestinazioa existitzen ez direla. ondorio horren abiapuntua → gaitzaren ukazioa da:

Eskotorentzat gaitza ez da errealitate bat → errealitate eza baizik:

jainkoak ez du gaitza ezagutzen, zeren jainkoak ez ditu gauzak ezagutzen existitzen direlako/ gauzak existitzen dira jainkoak ezagutzen dituelako. Ondorioz jainkoak gaitza ezagutuko balu gaitza existituko litzateke. Baina aurretik esan bezala gaitza ez da errealia, eta ondorioz eza dago probidentzirik ez predestinaziorik.

-Naturaren zatiketa: obra garrantzitsuena  
Naturaren egitura deskribatzen saiatzen da  
4 zati bereizten ditu:

- 1. Natura sortzailea da eta ez sortuada
- 2. Sortua eta sortzailea da
- 3. sortua da eta ez sortzailea da
- 4. ez da sortua eta ezta sortzailea ere.

1. Lehenengo natura Jainkoa da.

JAINKOA:

-gauza ooren ezentzia eta sortzailea da.

-Printzipioa, bitartekoa eta helburua da.

-Gauza guztiak jainkoarengandik sortuak dira, jainkoarengan bizi dira eta jainkoarengana zuzentzen dira.

-Jainkoa 3 substantzian banatzen da: Aita, semea eta espiritu santua.

-ezaguttezina eta esan ezina da

-Jainkoa errealitatearen etengabeko sorreran adierazten da → hau ta: TEOFANIA

2. Bigarren natura: Semea da, hau da, Jainkozko hitza.

-Semearengan gauza guztien formak daude → kausa nagusiak direnak, eta haien bitartez dena sortu da.

-Formak ez dira sortu, beti egon dira jainkoaren hitzean.

- Eskotoren ustez jainkoa ez da existitzen mundua sortu aurretik → Planteamendu hau panteista da, ez du kristau ortodoxiarekin bat egiten

3. Hirugarren natura : mundua da

-Gauza sentigarri eta ez sentigarrien osotasuna da.

4. Laugarren natura:

Helburua den jainkoarekin identifikatzen da: Amaieran, gauza guztiak jainkoarengana itzuliko dira eta betirako iraungo dute.

### **3. ANTSELMO CANTERBURYKOA: ARGUDIO ONTOLOGIKOA**

XI. mendeko kristau filosofo handia izan zen.

Eskotorekin alderaketa:

	ESKOTO	ANTSELMO
Fedea eta arrazoiaren arteko loturari dagokionez	Lehentasuna ematen dio arrazoiari	Arrazoimenak fedea egiaztatzen eta frogatzen duen arren. Federik gabe arrazoiketak ez du zentzurik. Hau da, fedeari ematen dio garrantzia handiagoa.
Jainkozko probidentziari dagokionez	Giza askatasunaren inguruko Eskotoren hausnarketak probidentzia kanpoan gelditzen da	probidentzia onartzen du, gizakia askea dela aldarrikatzen du.
munduaren sorrerari dagokionez	ezereza ukatzen du. Teofania proposatzen du.	ezerezetiko sorrera errebindikatzen du. Izan ere bere arabera, mundua arrazionalki sortu da ezerezetik.
		Eskotorekin konparatuta Antselmoren pentsamendua askoz errazago egokitzen da kristau ortodoxiari.

*Monologium* obran. Jainkoaren existentzia eta esentziari buruzko hausnarketa -Jainkozko esentziatik abiatuta → Jainkoaren existentzia frogatzen du. Antselmoren apiapuntua da: ideia unibertsalak errealitate partikularretan existitzeaz gain, berez existitzen direla. Adibidez: gauza edo ekintza onen existentziak → ongi absolutua suposatzen du, eta ongi horii Jainkoa da. Hau da, Monologiumen garatzen den argudioa errealitate partikularretatik abiatzen da unibertsaletara iristeko, eta unibertsaletatik Jainkoarengana iristeko.

*Proslogium* obran. Jainkoaren existentzia frogatzen du. Horretarako garatzen duen argudio ontologikoak bi ideia hartzen ditu abiapuntutzat

1. errealitatean existitzen dena pentsamenduan bakarrik existitzen dena baino perfektuagoa da
2. Perfektua denaren existentzia ukatzea kontraesankorra da, ukazioak erakusten baitu zerbait perfektuagoa pentsa daitekeela, eta beraz existitzen dela.

Jainkoaren existentziatik haren esentzia ondorioztatzen du:

- Jainkoa izaki perfektu eta absolutua da
- espaziotik eta denboratik kanpo dago
- Jainkoaren izaera jatorrizkoa eta beharrezkoa da

#### 4. ABELARDO ETA UNIBERTSALEN INGURUKO EZTABAIDA

XI.mendean unibertsalen inguruko eztabaida areagotu zen.

Porfirionen *Isagoge* obran planteatzen da arazoa, bertan bi jarrera nabarmentzen dira:

Errealismoa eta Nominalismoa.

- Errealismoak baieztatzen du unibertsalak pentsamendutik kanpo existitzen direla. Tradizio platonikoari lotzen zaio.
- Nominalismoak berriz, planteamendu hori ukatzen du, tradizio estoikoari lotzen zaio. Tradizio honetan unibertsalak errealitateen ordeztar diren zeinuak dira.

Ikuspegi filosofikotik oso garrantzitsua da unibertsalen inguruko arazoa, izan ere, Jainkoa beharrez gizona hartzen baitu ikergai. Eztabaidan planteamendu laikoen lehen agerpenak ikusi daitezke.

Eztabaidan parte hartu zuten filosofoen artean 3 garrantzitsuenak dira:

1. Roscelino: nominalismo erradikala defendatzen du. Berarentzat errealitate bakarra errealitate singularra da, eta unibertsalak soinuak besterik ez dira.
2. Beste muturrean Gilen Txanpeauxekoa dago, errealismoa aldarrikatzen du: bere ustez, unibertsalak errealitate substantzialak dira, errealitate horiek errealitate zatietan eta singular guztietan daude, eta haien arteko desberdintasunak akzidentalak dira.
3. Interesgarriena Abelardoren doktrina da. Aurreko bietatik urruntzen da. Abelardoren abiapuntua Aristotelesen unibertsalen nozioa da, Abelardok unibertsala errealitate bat edo izen bat dela ukatzen du. Berak predikazioa planteatzen du, *sermoia*. Abelardok defendatuko du unibertsala ez dela errealitate bat ezta izen bat bakarrik, bere ustez unibertsalak esanhaia du.

#### 5. FILOSOFIA MUSULMANA ETA JUDUTARRA

##### MUSULMANA

Eskolastika bat sortu zen → pentsamendu arrazionalaren bidez Koranean agertzen dena ulertzea helburu zuena.

-Kristau eskolastikan bezala, filosofia grekoaz baliatu ziren, batez ere Neoplatonismoaz eta aristotelismoaz.

-Badago desberdintasun bat kristau eskolastikarekin : Beharrezkotasunaren printzipioa:

+Musulmanen arabera: beharrezkotasuna nagusia da eta guztia jainko bakarraren menpe dago

+kristau eskolastika berriz, beharrezkotasunetik askatzen saiatzen da eta giza askatasun bermatzen saiatzen da.

Filosofo musulmanen artean garrantzitsuenak AVICENA

##### AVICENA

-Aristotelesen pentsamendua hartzen du abiapuntutzat. Aristotelesen *materia eta forma*-ren doktrina landu zuen.

Bere ustez errealitate gorpuzdun guztiak materia eta formaz osatuta daude.

Baina Aristotelesen doktrinan ez bezala, avicenarentzat →errealitate bakoitzean forma substantzialak bat baina gehiago dira.

-Aristotelesentzat arimak formak dira

Avicenak ordea gizakiak 3 arima ditu: begetatiboa (elikadura, hazkuntza eta ugalketa kontrolatzen dituena) / animalia (mugimendua eta hautematea) / eta arrazoiduna (pentsamendu arrazionalaren arduraduna)

Lehenengo 2ak hilkorrek dira eta 3.ak (arrazoidunak) bizirik irauten du.

3.honetan (arima arrazoidunean) ni ahalmen intelektual bereizten ditu:

- + Harkorra: zentzumenen bidez informazioa jasotzen duena
- + Ekilea: gizabanako guztien gainetik dago eta kontzeptu unibertsalak ulertzeko ahalmena ematen du.

Adimen ekilea : materiaren, arimen eta munduko forma guztien kausa da.

Teologiari dagokionez: *existentziaren eta esentziaren arteko bereizketa* lantzen du→ eta hortik abiatuta Jainkoaren existentzia frogatzen du:

Avicenaren ustez mundu materialen 3 errealitate daude:

- singularrak (txakur hau, lore hori)
- unibertsalak (txakur, lore)
- esentzia: ez da bakarra ez anitza, eta errealitate singularrekiko neutrala da. Singularren existentziaren kausa da, kausa hori: Jainkoa da  
+Gainerako kausetan ez bezala, Jainkoaren existentzia bere esentzian dago, eta gainontzeko errealitateen existentzia bere menpe dago.

Beste autore garrantzistu bat:

AVERROES

zenbait alderditan avicenarengandik urrundu:

- jainkoarengana iristen den kausen eta ondorioen katearen doktrina errefusatu
- adimen ekilea eta harkorra ez ditu gizabanakoen ahalmen bezala identifikatzen.  
→Bi adimenak substantzia bakarra direla esaten du, betierekoak eta gorpuzgabeak.

Gorputza hil ondoren arimak nahasten direla eta adimen unibertsalean murgiltzen direla aldarriakzten du averroeske.

Eragin handia XIII:mendean , batez ere tomas akinokoarengan.

## JUDUTAR FILOSOFIA

Judutar filosofia ere eskolastika bat dago. Filosofia grekoaz eta tradizio erlijiosoaz baliatzen dena.

Zenbait arazo filosofiko aztertzen dira:

- fedearen eta arrazoimenaren arteko lotura
- jainkoaren eta munduaren arteko lotura
- arimaren eta ulermenaren arteko lotura

Beste eskolastiketan ez bezala, judutar pentsamendu filosofikoa tradizio mistikoaz baliatzen da.

Filosofo judutar garrantzitsuena MAIMONIDES DA:

MAIMONIDES

Erljioaren eta filosofiaren arteko gatazka gainditzen saiatu zen.

bere ustez filosofiaren helburua bibliaren edukia argitzea izan behar da; izan ere, bibliaren eduki asko ulertzeko hausnarketa filosofikoaren beharra dago esanahia argitzeko.

Teologiari dagokionez: averronesek uste du ezin dela ezer esan jainkoari buruz → Jainkoa erabateko batasuna izanik, ez duelako ezaugarririk. Hala ere dio naturaren bidez ezagutu daitekeela jainkoa. Naturaren ezagutzaren helburua → jainkoa maitatzea eta imitatzea litzateke.